




# FASE ESPEZIFIKOA

## MARRAZKETA ARTISTIKOA





Modulua

**MARRAZKETA  
ARTISTIKOA**

**Unibertsitaterako sarbidea: 25 urtetik gorakoentzat**

**Gutxi gorabeherako iraupena: 90 ordu**



## **AURKIBIDEA**

### **1. AURKEZPENA ETA HELBURUAK**

### **2. EDUKIAK**

#### **1. MULTZOA: FORMA: FORMAREN OSAGAIK (30 ordu)**

Ezagutza-adierazleak

#### **2. MULTZOA: KONPOSIZIOA: EGITURA SINTAXIA (30 ordu)**

Ezagutza-adierazleak

#### **3. MULTZOA: KOLOREA (30 ordu)**

Ezagutza-adierazleak



## 1. AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Hauek dira "*Marrazketa artistikoa*" alorrean ikasleek lortu behar dituzten gaitasunak:

- Formen oinarriko elementu kontzeptualak eta egiturazkoak ezagutu eta bereiztea.
- Ikuste-datuak modu objektiboan eta zentzu integratzaileaz erabiltzea, multzo bateko elementu artikulatuztat hartuta eta irudiaren osaera eta espresibitate globalaren barruan duen garrantzi erlatiboa balioetsiz.
- Ingurunearen ikusmen analitikoa eskuratu, forma naturalak eta artifizialak asmo deskriptiboaz irudikatzea ahalbidetzeko.
- Objektuen formaren errealitatea ulertu eta aztertu, formen antolaketa estrukturalari, inplizituari edo esplizituari eta formaren erlazio espazialari dagokionez.
- Formak ikusmen-asmo ezberdinen bidez aztertu eta interpretatu, baliabide tekniko ezberdinekin eta eraldaketa konbinatorio dibergenteak eginez.
- Inguruko formen behaketarako eta ikerketa zuzenerako interesa agertzea, ezagutza-iturri moduan duten garrantzia ulertuz eta espresio-aukeretako hausnarketari eskaintzen dizkioten datuen aberastasuna onartuz.
- Irudi plastikoekin lotura duten pertzepzio-mekanismoak erabiltzea, ikusmen- eta oroimen-memoriak garatzeko.
- Irudikapenerako material, prozedura eta teknika ezberdinek espresiorako dituzten aukera aberatsak bereiztea, eta asmo espresiboak aberasteko erabiltzea, asmoak lortzeko izan dezaketen erabilera egokiak aintzat hartuz.
- Egileen lanak aztertzea eta balioestea, beraien inguruneak izaera artistiko zehatza eskuratzean izan duen eragina aintzat hartuta.

Modulu hau eskainiko duen prestakuntza-prozesu orotan, elkarren artean lotuko diren "*edukiak*" eskaini beharko dira, "*ezagutza-adierazleek*" ezarritako mailaren eta hedaduraren arabera. Ebaluazio-irizpideak dira horiek, eta eduki-bloke bakoitzeko gai edo ariketarik funtsezkoenak biltzen dituztenez, edonork jakin beharrekoak edo jakinarazi beharrekoak hartzen dituzte.

## 2. EDUKIAK

### 1. MULTZOA: FORMA: FORMAREN OSAGIAK (30 ordu)

- Forma. Kontzeptua. Forma-motak. Forma plastikoak.
- Irudia. Izaera eta kontzeptua. Sailkapena. Ezaugarriak. Funtzioak. Irudi grafiko-plastikoa.
- Kontzeptu ikonografikoak: apuntea, eskema, zirriborroa, estudioa, proiektua eta amaierako irudia.
- Formaren elementu kontzeptualak: puntua, lerroa, plano eta bolumena. Ikuste-ezaugarriak. Erlazio-elementuak: Formen arteko erlazioak, espresio-balioak.
- Formaren antolaketa. Kontrastearen, banaketaren, kokapenaren eta orientazioaren erlazioak.
- Formaren adierazpenaren alderdiak. Ikuspuntua, enkoadraketa, orientazioa. Ikuste-eskalak. Erlazio espazialak. Ahokadura.
- Adierazi espazialak: zeihartasuna, gainjartzea eta gardentasuna. Desitxuratzeak. Gradianteak. Argia.



## EZAGUTZA ADIERAZLEAK

- 1.1. *Formaren elementu kontzeptualak identifikatzea eta aztertzea, baita horien balio deskriptibo eta espresiboak ere.*
- 1.2. *Forma naturalak irudikatzea, egitura-antolaketak deskribatuz.*
- 1.3. *Inguruko formak adierazterakoan lerroak izaera deskriptiborako erabiltzea.*
- 1.4. *Hirietako formen apunte grafikoak egitea, konfigurazioak nabarmenduz.*
- 1.5. *Denbora motzean behatutako formak eskematikoki deskribatzea.*
- 1.6. *Hiru dimentsiotako objektuak grafikoki irudikatzea, lerroak eta itzalak erabiliz, eta objektuen tonu-balioak bereiztea.*
- 1.7. *Oroimen pertzeptibotik edo imajinatutik lortutako irudiak marraztea.*
- 1.8. *Giza irudiaren estudio grafiko monokromatikoak egitea.*
- 1.9. *Objektu-formak ikuspegi ezberdinetatik behatu eta irudikatzea.*
- 1.10. *Formak ikono-maila ezberdinetan interpretatzea (apunteak, zirriborroak, eskemak, estudioak).*

## 2. MULTZOA: KONPOSIZIOA: EGITURA SINTAXIA (30 ordu)

- Formaren psikologia. Ikuste-lege elkarkorrak hurbiltasuna, antzekotasuna, berdintasuna, itxiera, jarraitutasuna, mugimendu komuna eta esperientzia.
- Parekotasun- eta kontraste-erlazio formalak: figura/atzealdea, neurria/kolorea, testura/tonoa. Hierarkizazioa. Gradazioa.
- Formek espazioan duten erlazioa: urruntasuna, ukipena edo tangenzia, gainezarpena, barneratzea, bilketa, kenketa, ebakidura eta kointzidentzia.
- Konposizioaren funtsezko legeak: Oreka: pisua eta norabidea. Simetria. Asimetria. Proporzionaltasuna. Erritmoa: azentua, bitartea, modulu erritmikoa.
- Hiru dimentsioko formek espazioan duten erlazioa: urruntasuna, ukipena, barneratzea, ebakidura eta ainguraketa.
- Erritmoa. Modulu erritmikoa. Azentuak eta bitartekak. Erritmo estatikoa edo kadentzia, erritmo dinamikoa.
- Kontsonantzia, alternantzia, disonantzia, progresioa. Lerro-erritmoak, konfigurazio-erritmoak, kolore-erritmoak, tonu-erritmoak, testura-erritmoak, norabide-erritmoak, posizio-erritmoak.
- Formen egituraketa espaziala. Oreka estatikoa, elkarrekikotasunak. Simetria. Oreka dinamikoa: pisua eta norabide bisuala.
- Adierazle espazialak irudikapen grafikoplastikoan: Perspektiba, argiaren eta koloreen espresio-balioa.
- Irudia eta funtzioak Forma/edukia koherentzia.
- Elementuen arteko erlazioa, banaketaren eta orientazioaren arabera. Hedapena. Kontzentrazioa.

## EZAGUTZA ADIERAZLEAK

- 2.1. *Modulukako garapenaren konposizioak egitea.*
- 2.2. *Analogiaren eta kontrastearen forma-erlazioak konposizio grafikoetarako erabiltzea.*
- 2.3. *Konposiziorako terminologiako kontzeptuak, printzipioak eta legeak aplikatzea.*
- 2.4. *Bi dimentsiotako konposizioak egitea, orekaren, simetriaren, eskalaren eta erritmoaren kontzeptuak aintzat hartuta.*
- 2.5. *Artelanak azertu, lana egiterakoan erabilitako elementuak, eta erlazioak eta konposizio-elementuak deskribatu.*
- 2.6. *Antolaketa espazialari buruzko galderak planteatu eta ebaztea.*
- 2.7. *Konposizio estatiko eta dinamikoa egitea, banaketaren, orekaren eta masa-konpentsazioaren kontzeptuak aintzat hartuta.*
- 2.8. *Hiru dimentsioko forma geometrikoak irudikatzea, eta formen artean dauden erlazio espazialak deskribatzea.*
- 2.9. *Irudi grafikoplastikoetan adierazi espazialak zehaztea.*
- 2.10. *Konposizioak egitea, hedapenaren eta kontzentrazioaren kontzeptuak aintzat hartuta.*



### 3. MULTZOA: KOLOREA (30 ordu)

- Argiaren izaera. Espektror elektromagnetikoa. Ikuste-espektror ikusgaia. Argi zuria ren deskonposaketa: dispersioa. Sintesi batukorra. Argi primarioak.
- Kolorearen pertzepzioa. Ikuste-sistema. Ikusmen-prozesua: maila fisiologikoa, psikikoa. Koloreak ikustearen teoria.
- Kolorearen dimentsioak: tonua edo ñabardura, aletasuna edo intentsitatea eta distira edo argitasuna. Kolorearen metrika.
- Pigmentu-kolorea. Nahasketa murriztailea. Oinarrizko pigmentua. Kolore osagarriak. Bigarren mailako eta hirugarren mailako kolore konposatuak.
- Kolorearen psikologia. Armonia eta kontrastea. Sentsazio termiko kromatikoa: tonu beroak, tonu hotzak.
- Fenomeno optikoak: Koloreen dinamika. Aldi bereko kontrasteak. Kolorearen erlatibotasuna. Koloreen arteko elkarreagina.
- Erlazio harmonikoetako sarrera: harmonia kromatikoak, antzekotasun-harmoniak. Azentuak, kontrasteak.
- Kolorearen semantika. Funtzioak eta aplikazioak: komunikazio-balioa, espresio-balioa eta balio sinbolikoa.

#### **EZAGUTZA ADIERAZLEAK**

- 3.1. *Formen koloreetan argiak eragiten duen moduaren arabera nabaritzen diren aldaketak plastikoki interpretatzea.*
- 3.2. *Pigmentuen nahasketari buruzko ezagutzak lan plastikoetan aplikatzea.*
- 3.3. *Nahasketa gehigarriekin eta murriztaileekin saiakuntzak egitea, kolore-ñabardurak lortzeko.*
- 3.4. *Objektuen azaleko ezaugarriak irudikatzea, kolorearen modulazioari buruzko ezagutzak aplikatuz.*
- 3.5. *Fenomeno optikoen eta koloreen dinamikaren ezagutzak irudikapen grafikoplastikoetan erabiltzea.*
- 3.6. *Adierazpen artistikoetako koloreen komunikazio-balioak, espresio-balioak eta balio sinbolikoak aztertzea eta interpretatzea.*






## EDUKI BLOKEEN EZAGUTZA ADIERAZLEEI DAGOZKIEN ARIKETEN ADIBIDEAK

MULTZOA	EZAGUTZA ADIERAZLEAK	ARIKETAK
1	1.1. Formaren elementu kontzeptualak identifikatzea eta aztertzea, baita horien balio deskriptibo eta espresiboak ere.	1-5-6-7
	1.2. Forma naturalak irudikatzea, egitura-antolaketa deskribatuz.	1-2-6-7
	1.3. Inguruko formak adierazterakoan lerroak izaera deskriptiborako erabiltzea.	4-12-9
	1.4. Hirietako formen apunte grafikoak egitea, konfigurazioak nabarmenduz.	12-11
	1.5. Denbora motzean behatutako formak eskematikoki deskribatzea.	4-3
	1.6. Hiru dimentsiotako objektuak grafikoki irudikatzea, lerroak eta itzalak erabiliz, eta objektuen tonu-balioak bereiztea.	5-7
	1.7. Oroimen pertzeptibotik edo imajinatutik lortutako irudiak marraztea.	4-1-2-3
	1.8. Giza irudiaren estudio grafiko monokromatikoak egitea.	6-7-3
	1.9. Objektu-formak ikuspegi ezberdinetatik behatu eta irudikatzea.	3-10
	1.10. Formak ikono-maila ezberdinetan interpretatzea (apunteak, zirriborroak, eskemak, estudioak).	8-10-15
2	2.1. Modulukako garapenaren konposizioak egitea.	15
	2.2. Analogiaren eta kontrastearen forma-erlazioak konposizio grafikoetarako erabiltzea.	9-17-
	2.3. Konposiziorako terminologiako kontzeptuak, printzipioak eta legeak aplikatzea.	14-12-9
	2.4. Bi dimentsiotako konposizioak egitea, orekaren, simetriaren, eskalaren eta erritmoaren kontzeptuak aintzat hartuta.	5
	2.5. Artelanak aztertu, lana egiterakoan erabilitako elementuak, eta erlazioak eta konposizio-elementuak deskribatu.	14
	2.6. Antolaketa espazialari buruzko galderak planteatu eta ebaztea.	12
	2.7. Konposizio estatiko eta dinamikoak egitea, banaketaren, orekaren eta masa-konpentsazioaren kontzeptuak aintzat hartuta.	1-3-4-5-17
	2.8. Hiru dimentsioko forma geometrikoak irudikatzea, eta formen artean dauden erlazio espazialak deskribatzea.	5-9
	2.9. Irudi grafikoplastikoetan adierazi espazialak zehaztea.	1-4-5
	2.10. Konposizioak egitea, hedapenaren eta kontzentrazioaren kontzeptuak aintzat hartuta.	17-15
3	3.1. Formen koloreetan argiak eragiten duen moduaren arabera nabaritzen diren aldaketak plastikoki interpretatzea.	5-11
	3.2. Pigmentuen nahasketari buruzko ezagutzak lan plastikoetan aplikatzea.	9-17
	3.3. Nahasketa gehigarriekin eta murriztaileekin saiakuntzak egitea, kolore-ñabardurak lortzeko.	17
	3.4. Objektuen azaleko ezaugarriak irudikatzea, kolorearen modulazioari buruzko ezagutzak aplikatuz.	9-2-4



	<i>3.5. Fenomeno optikoen eta koloreen dinamikaren ezagutzak irudikapen grafikoplastikoetan erabiltzea.</i>	9-15
	<i>3.6. Adierazpen artistikoetako koloreen komunikazio-balioak, espresio-balioak eta balio sinbolikoak aztertzea eta interpretatzea.</i>	9-16-14






1. Naturako objektu bat (zuhaitza) dugularik, adierazi objektuaren formaren egitura adierazten duten gidalerroak edo indar-lerroak.  
Proporzioak zehaztu eta forma-tratamendua baino, eman sakonera-tratamendua.



2. Irudikatu esku hutsez fruta baten eta lore baten oineko bista eta profil ebakia, zuzeneko ikuspuntu mugatu honetatik behatzen badugu; aztertu egitura geometrikoak eta itzalak, eta koloreak erabili.






3. Bakoitzaren eskua eredutzat hartuta, irudikatu posizio ezberdinetan (4), indar-lerro nagusienak nabarmenduz, eta xehetasunak gehitu, argi-ilunak teknikaren bidez grisaren eskala erabiliz.



4. Irudikatu grafikoki azkar eta xehetasunik gabe beheko irudietan oinarritutako bidaiaren inpresioak (benetan jasotakoak nahiz amestutakoak).





5. Lerro-bilbeak erabiliz: marraztu zilindro bat, kono bat eta esfera bat, itxura tridimentsionala dutela. Modu berean, marraztu kaferako katilua eta platertxoa dituen natura hil txiki bat, eta beste bat: arrautzak dituen platera gehituz. Landu itxura bolumetrikoak dentsitate handiagoko edo txikiagoko lerroak eta puntu-bilbeak erabilita.




6. Greziako mukulu biribileko eskultura klasikoak hartuta: egin ikuspegi ezberdineko zirriborroak eta lerroak eta akabera eman koloreak erabiliz, giza figuraren egitura-alderdiak nabarmenduz.



7. Migel Anjel margolariaren irudi bat erabiliz: egin giza figuraren egituraren azterketa kolore bakarra erabiliz (beltza, sangina, albaialdea...). Bilatu erlazio-ardatzak, konposizioa, atalen arteko proportzioak, mugimenduaren azterketa eta giza anatomiarena.





8. Balio sinboliko sendoa duen ikonoa (zezen bat, adibidez) eta Picassoren zirriborroak aintzat hartuta:  
Egin artista horrek erabilitako ikono-balioen analisia.

9. Natura hil bateko konposizio soiletik abiatuta, bilatu soluzio harmonikoak eta kontrasteak kolore-modulazioak eginez, eta atzealdeko eta formako funtzioak aldatuz.



10. Irudikatu, akabera-mota ezberdinak erabilita, giza begi bat: lerroaren, itzalen eta kolorearen bidez akabatu, grabatzaile artistikoen forma bolumetrikokoak nabarmentzeko erabiltzen dituzten tekniken antzekoak erabiliz.




11. Espazio naturalean kokatutako objektu artifizialaren irudia dugu; interpreta itzazu proposatutako objektuan eragiten duen argiaren aldaketa adierazteko kolore-soluzio desberdinak (4).









12. Beheko irudi hiritarreen oinarrituta, egin espazioaren antolaketari buruzko azterketa analitikoa. Azpimarratu irudikapen horretako ardatz nagusiak eta oinarrizko forma geometrikoak.



13. Irudi honetan (hasierako zirriborroa) erabilitako konposizioa aztertu, eta nabarmendu konposizioak, erritmoak, mugimenduak, orekak eta masen banaketak ezkutuan izan dezaketen geometria.







14. Beheko irudietan konposizio-mota ezberdinak daude. Esan zeintzuk diren eta azpimarratu bakoitzaren konposizioaren lerroak eta ezkutuan duten geometria.



1



2




3




4



5



6



7



8




9



10

15. Karratu bat modulutzat hartuta, egin Vasarelli-ren lanen antzeko konposizioak.








16. Aztertu beheko bi konposizioetan argiak duen garrantzia. Aipatu konposizioen egileak.



17. Nahasketa gehigarriekin eta murriztaileekin saiakuntzak eginez, egin beheko natura hilaren erreprodukzioa. Koloretako arkatzekin eginez gero, erabili bilbatuak eta zonak. Pigmentuekin eginez gero, erabili pigmentuen nahasketak.






## EDUKI BLOKEEN EZAGUTZA ADIERAZLEEI DAGOZKIEN ARIKETEN ADIBIDEEN ERANTZUNAK



1. Naturako objektu bat (zuhaitza) dugularik, adierazi objektuaren formaren egitura adierazten duten gidalerroak edo indar-lerroak.  
Proportzioak zehaztu eta forma-tratamentua baino, eman sakonera-tratamendua.



Erantzuna:




Ardatz bertikalari dagokionez, enberraren gidalerroaren inklinazioa. Ardatz partzialak adarkatuak. Lerro kurbo paraleloak, adarren norabidea adierazteko.





**Aldeen arteko proportzioen estimazioa.  
Atzealdearen bidez forma emanez, irudia negatiboan hartuta.**





2. Irudikatu esku hutsez fruta baten eta lore baten oineko bista eta profil ebakia, zuzeneko ikuspuntu mugatu honetatik behatzen badugu; aztertu egitura geometrikoak eta itzalak, eta koloreak erabili.

Erantzuna:







3. Bakoitzaren eskua eredutzat hartuta, irudikatu posizio ezberdinetan (4), indar-lerro nagusienak nabarmenduz, eta xehetasunak gehitu, argi-ilunak teknikaren bidez grisaren eskala erabiliz.



Erantzuna:







4. Irudikatu grafikoki azkar eta xehetasunik gabe beheko irudietan oinarritutako bidaiaren inpresioak (benetan jasotakoak nahiz amestutakoak).

Erantzuna:


*San Jorge uhartea.*




*La Salute eliza*



*La Salute eliza, urrunetik*








5. Lerro-bilbeak erabiliz: marraztu zilindro bat, kono bat eta esfera bat, itxura tridimentsionala dutela. Modu berean, marraztu kaferako katilua eta platertxoa dituen natura hil txiki bat, eta beste bat: arrautzak dituen platera gehituz. Landu itxura bolumetrikoak dentsitate handiagoko edo txikiagoko lerroak eta puntu-bilbeak erabilita.




Erantzuna:



Lerroen bidez egindako irudien adibideak, itzalekin eta bilbatuak erabiliz








6. Greziako mukulu biribileko eskultura klasikoak hartuta: egin ikuspegi ezberdineko zirriborroak eta lerroak eta akabera eman koloreak erabiliz, giza figuraren egitura-alderdiak nabarmenduz.


Erantzuna:





7. Migel Anjel margolariaren irudi bat erabiliz: egin giza figuraren egituraren azterketa kolore bakarra erabiliz (beltza, sangina, albaialdea...). Bilatu erlazio-ardatzak, konposizioa, atalen arteko proportzioak, mugimenduaren azterketa eta giza anatomiarena.

Erantzuna:



Figuraren mugimenduaren efektua behatzen da eskema honetan: ardatz inklinatuekin osatzen da gorputzaren errotazio-sentsazioa nabarmentzeko, oreka kalkulatuari esker.




Egitura anatomikoz gain irudia lerrotatzen duen egitura geometrikoa ere antzematen da, eta antzeko irudi naturalean gida-lerro eta kontrol-lerro moduan erabil daitezke.



Figura honen egituran eskuineko besoak aurrera egiten du, ezkerreko hankarekin batera, eta alderantziz, giza gorputzaren mugimenduaren ezaugarriak aintzat hartuta.




Gainezarritako irudian beha daitezke besoentzako soluzio ezberdinak. Figurarekin batera doazen zimborroetatik ateratakoak dira: eskuineko eskua aurrerantz eta ezkerrekoa beherantz.




8. Balio sinboliko sendoa duen ikonoa (zezen bat, adibidez) eta Picassoren zirriborroak aintzat hartuta: egin artista horrek erabilitako ikono-balioen analisisa.


Erantzuna:




Lehenengo egoera




Bigarren egoera




Hirugarren egoera



Laugarren egoera



Bosgarren egoera




Seigarren egoera





9. Natura hil bateko konposizio soiletik abiatuta, bilatu soluzio harmonikoak eta kontrasteak kolore-modulazioak eginez, eta atzealdeko eta formako funtzioak aldatuz.

Erantzuna:








10. Irudikatu, akabera-mota ezberdinak erabilia, giza begi bat: lerroaren, itzalen eta kolorearen bidez akabatu, grabatzaile artistikoek forma bolumetrikokoak nabarmentzeko erabiltzen dituzten tekniken antzekoak erabiliz.

Erantzuna:






11. Espazio naturalean kokatutako objektu artifizialaren irudia dugu; interpreta itzazu proposatutako objektuan eragiten duen argiaren aldaketa adierazteko kolore-soluzio desberdinak (4).

Erantzuna:



1. eta 2.






3. eta 4.






12. Beheko irudi hiritarreen oinarrituta, egin espazioaren antolaketari buruzko azterketa analitikoa. Azpimarratu irudikapen horretako ardatz nagusiak eta oinarrizko forma geometrikoak.



Erantzuna:




1. Horizontearikiko paraleloak diren lerro horizontalei kontrajarritako indar-lerro diagonalak.
2. Lerro bertikalak argiztapeneko zutoinetarako, etxeetarako eta biltegi zilindrikorako.
3. Lerroak erdiko ihespunturantz (konposizioaren interesgunerantz).
4. Forma kurboak zuhaitzetarako.






13. Irudi honetan (hasierako zirriborroa) erabilitako konposizioa azertu, eta nabarmendu konposizioak, erritmoak, mugimenduak, orekak eta masen banaketak ezkutuan izan dezaketen geometria.




Erantzuna:




Konposizio diagonal gorakorra, mugimendua eta erritmo dinamikoa ematen dioten indar-lerro kurboak eta ingurutzailak ditu. Akzioak hiru espazio jarraituetan, sekuentzialetan daude, eszenako protagonisten begiraden eta besoen norabideekin ordenatuta.



14. Beheko irudietan konposizio-mota ezberdinak daude. Esan zeintzuk diren eta azpimarratu bakoitzaren konposizioaren lerroak eta ezkutuan duten geometria.





1




2



3



4



5



6

1 AXIALA 2 DIAGONALA 3 DIAGONALA 4 DIAGONAL BIKOITZA  
4 TRIANGELUARRA 6 ESPIRALA ETA DIAGONAL BIKOITZA.







7



8



8




10


7. Triangeluar bikoitza eta interesgunea zirkuluan. 8. Axial simetrikoa.  
9. Zurrumbilo-espirala. 10. Asimetrikoa eta konpentsatua.



15. Karratu bat modulutzat hartuta, egin Vasarelli-ren lanen antzeko konposizioak.



Erantzuna:








16. Aztertu beheko bi konposizioetan argiak duen garrantzia. Aipatu konposizioen egileak.




Vincent Van Gogh



Caravallo



17. Nahasketa gehigarriekin eta murriztaileekin saiakuntzak eginez, egin beheko natura hilaren erreprodukzioa. Koloretako arkatzekin eginez gero, erabili bilbatuak eta zonak. Pigmentuekin eginez gero, erabili pigmentuen nahasketak.



Erantzuna:








## PROBARAKO ADIBIDEA

Ariketa-mota asko eman daitekeenez, adibide modura lau proba jarri dira.

1. Inprimatuta dagoen egunkari baten orria modu aleatorioan izurtzean lor daitekeen objektua erabiliko dugu eredutzat. Irudikatu bi posatu ezberdinetan, hasierako forma aldatuz; objektuaren egitura-lerroak nabarmendu eta grabatuan erabiltzen diren tekniken antzekoak erabili (argi-ilunak, drapeatua, bilbatua).

**IRAUPENA:** 1 ordu eta 30 min.

**MATERIALA:** Gogortasun-maila ezberdineko arkatzak, akuarelarekin batera erabil daitezkeen koloretako arkatzak.





2. Bidaia batean ateratako argazkia oinarritzat hartuta, egin apunte azkar batzuk (8) xehetasunetan galdu gabe (irudiaren egituraren mamia soilik hartu behar da).



**IRAUPENA:** 1 ordu eta 30 min.

**MATERIALA:** Gogortasun-maila ezberdineko arkatzak, akuarelarekin batera erabil daitezkeen koloretako arkatzak.

3. Giza figuraren irudi bat hartuta, egin irudi horren zenbait eskortzo. “Moda-figuratzat” hartuta, diseinatu jantzi bat eta egin jantziarentzako kolore-probak.

**IRAUPENA:** 1 ordu eta 30 min.

**MATERIALA:** Gogortasun-maila ezberdineko arkatzak, akuarelarekin batera erabil daitezkeen koloretako arkatzak.








4. Historiako hiru pertsona ospetsu horien irudietan oinarrituta egin beraien aurpegietako lerro espresibo esanguratsuenak bilduko dituen estudioa, eta karikaturretara iritsi, lerro horiek puztuz.

**IRAUPENA:** 1 ordu eta 30 min.

**MATERIALA:** Gogortasun-maila ezberdineko arkatzak, akuarelarekin batera erabil daitezkeen koloretako arkatzak.









## PROBARAKO ADIBIDEEN ERANTZUNAK

1. Inprimatuta dagoen egunkari baten orria modu aleatorioan izurtzean lor daitekeen objektua erabiliko dugu eredutzat. Irudikatu bi posatu ezberdinetan, hasierako forma aldatuz; objektuaren egitura-lerroak nabarmendu eta grabatuan erabiltzen diren tekniken antzekoak erabili (argi-ilunak, drapeatua, bilbatua.)



Erantzuna:



-150-







3. Giza figuraren irudi bat hartuta, egin irudi horren zenbait eskortzo. “Moda-figuratzat” hartuta, diseinatu jantzi bat eta egin jantziarentzako kolore-probak.

Erantzuna:








4. Historiako hiru pertsona ospetsu horien irudietan oinarrituta egin beraien aurpegietaiko lerro espresibo esanguratsuenak bilduko dituen estudioa, eta karikaturetara iritsi, lerro horiek puztuz

Erantzuna:





**PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO  
ELKARREKIKOTASUNAK**

<b>ARIKETA</b>	<b>PLANTEATUTAKO GALDERA</b>	<b>EZAGUTZA ADIERAZLEAK</b>
<b>1. ARIKETA</b>	1. Egitura-lerroak nabarmentzea	1.1-1.2
	2. Objektu/eredu tridimentsionala irudikatzea	1.6
	3. Eredua bi ikuspuntu ezberdinetatik irudikatzea	1.9
	4. Antolaketa espazialari buruzko galderak ebaztea.	2.6
<b>2. ARIKETA</b>	1. Egitura-lerroak nabarmentzea	1.1-1.2
	2. Denbora motzean behatutako formak deskribatzea	1.5-1.3
	3. Imajinatutako edo amestutako irudiak marraztea	1.7-2.2-2.3
<b>3. ARIKETA</b>	1. Objektu/eredu tridimentsionala irudikatzea	1.1 – 1.2 –2.6
	2. Giza irudiaren estudioak egitea	1.8-1.3-1.5-
	3. Imajinatutako edo amestutako irudiak marraztea	1.7-2.2-2.3
	4. Forma geometrikoak irudikatzea eta diseinatzea	2.7-2.8
	5. Kolore-nahasketari buruzko ezagutzak aplikatzea	3.2
	6. Nahasketa gehigarriekin eta murriztaileekin saiakuntzak egitea	3.3
	7. Gainazaleko ezaugarriak irudikatzea, kolorearen modulazioaren bidez	3.4
<b>4. ARIKETA</b>	1. Imajinatutako edo amestutako irudiak marraztea	1.7-2.2-2.3
	2. Aurpegiko egitura-lerroak nabarmentzea	1.1-1.2
	3. Forma geometrikoak irudikatzea eta diseinatzea	2.7-2.8
	4. Bolumena duen objektua irudikatzea, tonuak balioztatuz	1.6



## PROGRAMAZIOA ETA IKASKETARAKO BALIABIDEAK

### • PROGRAMAZIOA

Marrazketa Artistikoan oinarritzotzat jotzen diren edukiak biltzen dituzten 3 bloketan banatu da modulu hau.

Lehenengo multzoan forma ezberdinak ezagutuko dira, eta modu kreatiboan adieraziko diren irudiak denotatiboki eta konnotatiboki aztertuko dira, komunikaziorako asmoa oinarri dela. Irudikatzea posible egiten duten osagai morfologikoak deskribatzen dira. Irudien eta irudi horiek osatzen dituzten formen antolaketari buruzko aipamenak ere egiten dira, gainontzeko multzoetan jorratuko diren gaietan murgiltzeko asmoz.

Bigarren multzoan konposizioaren legeen aplikazio praktikoak eta formak espazioan antolatzeko pertzepzioa landuko dira.

Azken multzoan kolorea landuko da, kolorearen pertzepzioak eta fenomeno optikoak, koloreen dinamika eta kontrasteak, eta komunikazioaren balore semantiko eta sinbolikoak.

Moduluaren oinarria 15 ikasketa-unitatek (IU) osatzen dute, eta jarraian laburki azaltzen dira.

Eduki-multzoak	Ikasketa Unitateak	Izendapena	Ordu kopurua
1. Forma. Konfigurazioaren osagaiak	IU 1	Forma. Forma-moten kontzeptua. Forma plastikoak.	3 ordu
	IU 2	Irudia. Izaera eta kontzeptua. Saikapena. Ezaugarriak. Funtzioak. Irudi grafiko-plastikoa.	3 ordu
	IU 3	Kontzeptu ikonografikoak: apuntea, eskema, zirriborroa, estudioa, proiektua eta amaierako irudia.	7 ordu
	IU 4	Formaren antolaketa. Kontrastearen, banaketaren, kokapenaren eta orientazioaren erlazioak.	5 ordu
	IU 5	Formaren irudikapenari buruzko alderdiak. Ikuspuntuak, enkoadraketa, orientazioa. Ikusmen-eskalak. Erlazio espazialak. Ahokadura.	7 ordu
	IU 6	Adierazi espazialak: zehartasuna, gainjartzea eta gardentasuna. Desitxuratzek. Gradazioak. Argia.	5 ordu
2. Konposizioa. Egitura-sintaxia	IU 7	Formaren psikologia. Ikuste-lege elkarkorrak hurbiltasuna, antzekotasuna, berdintasuna, itxiera, jarraitutasuna, mugimendu komuna eta esperientzia.	4 ordu
	IU 8	Parekotasun- eta kontraste-erlazio formalak: figura/atzealdea, neurria/kolorea, testura/tonoa. Hierarkizazioa. Gradazioa. Formek espazioan duten erlazioa: urruntasuna, ukipena edo tangentzia, gainezarpena, barneratzea, bilketa, kenketa, ebakidura eta kointzidentzia.	6 ordu





	IU 9	Konposizioaren funtsezko legeak: Oreka: pisua eta norabidea. Simetria. Asimetria. Proporzionaltasuna. Erritmoa: azentua, bitartea, modulu erritmikoa. Erritmoa. Modulu erritmikoa. Azentuak eta bitartea. Erritmo estatikoa edo kadentzia, erritmo dinamikoa. Kontsonantzia, alternantzia, disonantzia, progresioa. Lerro-erritmoak, konfigurazio-erritmoak, kolore-erritmoak, tonu-erritmoak, testura-erritmoak, norabide-erritmoak, posizio-erritmoak. Formen egituraketa espaziala. Oreka estatikoa, elkarrekotasunak. Simetria. Oreka dinamikoa: pisua eta norabide bisuala. Adierazle espazialak irudikapen grafikoplastikoan: perspektiba, argiaren eta koloreen espresio-balioa.	15 ordu
	IU 10	Irudia eta funtzioak. Forma/edukia koherentzia. Elementuen arteko erlazioa, banaketaren eta orientazioaren arabera. Hedapena. Kontzentrazioa.	5 ordu
3. Kolorea	IU 11	Argiaren izaera. Espektrro elektromagnetikoa. Ikuste-espektrro ikusgaia. Argi zuriaren deskonposaketa: dispersioa. Sintesi batukorra. Argi primarioak.	6 ordu
	IU 12	Kolorearen pertzepzioa. Ikuste-sistema. Ikusmen-prozesua: maila fisiologikoa, psikikoa. Koloreak ikustearen teoria.	6 ordu
	IU 13	Kolorearen dimentsioak: tonua edo ñabardura, asetasuna edo intentsitatea eta distira edo argitasuna. Kolorearen metrika.	6 ordu
	IU 14	Pigmentu-kolorea. Nahasketa murriztailea. Oinarrizko pigmentua. Kolore osagarriak. Bigarren mailako eta hirugarren mailako kolore konposatuak. Kolorearen psikologia. Armonia eta kontrastea. Sentsazio termiko kromatikoa: tonu beroak, tonu hotzak. Fenomeno optikoak: Koloreen dinamika. Aldi bereko kontrasteak. Kolorearen erlatibotasuna. Koloreen arteko elkarreragina.	6 ordu
	IU 15	Erlazio harmonikoetako sarrera: harmonia kromatikoak, antzekotasun-harmoniak. Azentuak, kontrasteak. Kolorearen semantika. Funtzioak eta aplikazioak: komunikazio-balioa, espresio-balioa eta balio sinbolikoa.	6 ordu



## IRUZKIN LABURRAK

### **1. Ikasketa Unitatea: FORMA. KONTZEPTUA. FORMA-MOTAK. FORMA PLASTIKOAK. (3 ordu)**

Formaren oinarrizko kontzeptuak ezagutzea da IU honetako helbururik garrantzitsuenak, horrela, gainontzeko IUetako ariketetan aplikatu ahal izango ditugu.

### **2. Ikasketa Unitatea: IRUDIA. IZAERA ETA KONTZEPTUA. SAILKAPENA. EZAUGARRIAK. FUNTZIOAK. IRUDI GRAFIKOPLASTIKOA. (3 ordu)**

IU honetan ikusiko dugunez, irudien bidez gure inguruko objektu erreala adierazteaz gain lehendik inoiz ere existitu izan ez diren objektuak irudikatze ere balioko digute.

### **3. Ikasketa Unitatea: KONTZEPTU IKONOGRAFIKOAK: APUNTEA, ESKEMA, ZIRRIBORROA, ESTUDIOA, PROIEKTUA. AMAIERAKO IRUDIA. (7 ordu)**

Zirriborroa eta apuntea kontzeptuak nahastea ohikoa da. Lanketa aurreratua duen marrazkia da zirriborroa; apuntea, berriz, marrazki laburra, motza eta zehatza da, azkar egindakoa. Eskematik zirriborroarako prozesuan motiboa indar-lerroen bidez gutxi gorabehera irudikatuko da, objektuaren geometria eta egitura adieraziz eta marrazkia eraikitzen lagunduz. Formen proportzioa eta osaera aztertuko dira.

### **4. Ikasketa Unitatea: FORMAREN ANTOLAKETA. KONTRASTEAREN, BANAKETAREN, KOKAPENAREN ETA ORIENTAZIOAREN ERLAZIOAK. (5 ordu)**

IU honetan esanguratsuenak da:  
gure inguruko objektu asko irudi geometriko eta oinarrizko formen bidez sintetiza daitezkeela. Marrazkia egiteari trazu arinekin ekiten zaio eta orokorrenetik zehatzenera eraikitzen joan behar da, xehetasunetaraino iritsi arte.

### **5. Ikasketa Unitatea: FORMAREN ADIERAZPENAREN ALDERDIAK. IKUSPUNTUA, ENKOADRAKETA, ORIENTAZIOA. IKUSTE-ESKALAK. ERLAZIO ESPAZIALAK. AHOKADURA. (7 ordu)**

IU honetan esanguratsuenak da:  
Inguruaren ikerketa egitea funtsezkoa da jasotzen ditugun irudiak ulertzeko. Irudien funtsezko osagaiak: errealitatea hautatzea, baliabide plastiko egokiak hautatzea eta errealitatetik jaso dugun irudiaren antzekoa lortu ahal izateko baliabide horien erabilera hierarkizatua. Formen barruan errealitatea ikustaraztea da irudikapena, egitura adieraziko duen eskema iradoki behar da eta eskema horren antzekotasuna eman behar du. Marrazkiek eta adierazpen grafikorako baliabide guztiek alderdi komunak dituzte: enkoadraketa, eta esanguratsuenak (eskalak, ikuspuntuak, etab.) hautatu behar da bertan.



**6. Ikasketa Unitatea: ADIERAZI ESPAZIALAK: ZEIHARTASUNA, GAINJARTZEA ETA GARDENTASUNA. DESITXURATZEAK. GRADAZIOAK. ARGIA. (5 ordu)**

IU honetan esanguratsuena da:

Definizio bat behar dute: Planoa, orbana edo masa; lerroek mugatutako dimentsio handiko zeinu grafikoa da, hau da, forma bat zehazten duen lerro itxi baten barruko azalera da. Plano honek bolumena edo hirugarren dimentsioa ere adierazi dezake, modu opaku gardenean gainjartzen diren egituraketa soilen bidez edo orbanen, masen edo planoen barneratzeen bidez.

**7. Ikasketa Unitatea: FORMAREN PSIKOLOGIA: IKUSTE-LEGE ELKARKORRAK HURBILTASUNA, ANTZEKOTASUNA, BERDINTASUNA, ITXIERA, JARRAITUTASUNA, MUGIMENDU KOMUNA ETA ESPERIENTZIA. (4 ordu)**

IU honetan esanguratsuena da:

Gestalt psikologia-eskolak ezarritako ikuste-legeen errepasso azkar bat egiten da, hauek dira esanguratsuenak: hurbiltasunaren, antzekotasunaren eta jarraitutasunaren legeak.

**8. Ikasketa Unitatea: PAREKOTASUN- ETA KONTRASTE-ERLAZIO FORMALAK: FIGURA/ATZEALDEA, NEURRIA/KOLOREA, TESTURA/TONOA. HIERARKIA. GRADAZIOA. FORMEK ESPAZIOAN DUTEN ERLAZIOA: URRUNTASUNA, UKIPENA EDO TANGENTZIA, GAINEZARPENA, BARNERATZEA, BILKETA, KENKETA, EBAKIDURA ETA KOINTZIDENTZIA. (9 ordu)**

IU honetan esanguratsuena da: Marrazkien, grabatuen edota bestelako irudi-moten figuraren eta atzealdearen arteko erlazioari buruz Edgar Rubin-ek mende hasieran esandakoak erabiliko ditugu: nabarmentzen den objektua da figura, eta honen atzean kokatzen direnek osatzen dute atzealdea. Objektuen siluetek lagunduko digute bereizten eta karakterizatzen.

**9. Ikasketa Unitatea: KONPOSIZIOAREN FUNTSEZKO LEGEAK: OREKA: PISUA ETA NORABIDEA. SIMETRIA, ASIMETRIA. PROPORZIONALTASUNA. ERRITMOA: AZENTUA, BITARTEA, MODULU ERRITMIKOA. ERRITMOA. MODULU ERRITMIKOA. AZENTUAK ETA BITARTEAK.**

**ERRITMO ESTATIKOA EDO KADENTZIA, ERRITMO DINAMIKOA. KONTSONANTZIA, ALTERNANTZIA, DISONANTZIA, PROGRESIOA. LERRO-ERRITMOAK, KONFIGURAZIO-ERRITMOAK, KOLORE-ERRITMOAK, TONU-ERRITMOAK, TESTURA-ERRITMOAK, NORABIDE-ERRITMOAK, POSIZIO-ERRITMOAK. FORMEN EGITURAKETA ESPAZIALA. OREKA ESTATIKOA, ELKARREKIKOTASUNAK. SIMETRIA. OREKA DINAMIKOA: PISUA ETA NORABIDE BISUALA. ADIERAZLE ESPAZIALAK IRUDIKAPEN GRAFIKOPLASTIKOAN: PERSPEKTIBA, ARGIAKAREN ETA KOLOREEN ESPRESIO-BALIOA. (9 ordu)**

IU honetan esanguratsuena da: Konposizioan eragiten duten lege-multzoreen zerrenda egin eta arrazionalizatuko dira. Balantzaren legea izango da oreka eta formen simetria lortzeko konposizio-irizpidea: zentroan izango da interesgune nagusia eta forma nagusia. Masak konpentsatzeko legea erabiliko da pisu bisual ezberdineko formen arteko lotura egiteko. Urrezko sekzioa izango da gorputz baten eta bere osagaien arteko lotura-modurik soilena (proporzioak). Simetria eta erritmo-mota ezberdinak aztertuko dira.





**10. Ikasketa Unitatea: IRUDIA ETA FUNTZIOAK. FORMA/EDUKIA KOHERENTZIA. ELEMENTUEN ARTEKO ERLAZIOA, BANAKETAREN ETA ORIENTAZIOAREN ARABERA. HEDAPENA. KONTZENTRAZIOA. (4 ordu)**

IU honetan esanguratsuena da: Irudiak asmo zehatzeko mezuak aditzera ematean duen funtzioa ulertu nahi da; formaren eta edukiaren koherentzia errespetatu behar da mezua behar bezala iristeko eta eraginkortasun minimo batez deskodetu ahal izateko. (Publizitatean dugu adibiderik argiena)

**11. Ikasketa Unitatea: ARGIAREN IZAERA. ESPEKTRO ELEKTROMAGNETIKOA. IKUSTE-ESPEKTRO IKUSGAIA. ARGI ZURIAREN DESKONPOSAKETA: DISPERSIOA. SINTESI BATUKORRA. ARGI PRIMARIOAK. (6 ordu)**

IU honetan esanguratsuena da: Ikuspegi zientifiko-teknikoa erabiliz argiaren fenomenoak, bere funtzionamendua eta legeak ulertarazi nahi dira.

**12. Ikasketa Unitatea: KOLOREAREN PERTZEPZIOA. IKUSTE-SISTEMA. IKUSMEN-PROZESUA: MAILA FISIOLOGIKOA, PSIKIKOA. KOLOREAK IKUSTEAREN TEORIA. (6 ordu)**

IU honetan esanguratsuena da: Ikusmenaren mekanika aztertzen da, alderdi fisiologikoan eta neurologikoan sakonduz, eta ikusmenaren erantzun-kinadak (koloreak) jorratuz. Koloreen hainbat teoria ere aipatuko dira.

**13. Ikasketa Unitatea: KOLOREAREN DIMENTSIOAK: TONUA EDO ÑABARDURA, ASETASUNA EDO INTENTSITATEA ETA DISTIRA EDO ARGITASUNA. KOLOREAREN METRIKA. (6 ordu)**

IU honetan esanguratsuena da: Koloreei buruzko definizio zientifikoetako kontzeptuak ongi bereiziko dira (batez ere kolorea-argia)

**14. Ikasketa Unitatea: PIGMENTU-KOLOREA. NAHASKETA MURRIZTAILEA. OINARRIZKO PIGMENTUA. KOLORE OSAGARRIAK. BIGARREN MAILAKO ETA HIRUGARREN MAILAKO KOLORE KONPOSATUAK. KOLOREEN PSIKOLOGIA. ARMONIA ETA KONTRASTEAK. SENTSAZIO TERMIKO KROMATIKOA: TONU BEROAK, TONU HOTZAK. FENOMENO OPTIKOAK: KOLOREEN DINAMIKA. ALDI BEREKO KONTRASTEAK. KOLOREAREN ERLATIBOTASUNA. KOLOREEN ARTEKO ELKARRERAGINA. (6 ordu)**

IU honetan esanguratsuena da: Kolore/pigmentuak euskarri batean duen eragina aztertuko da, argiak euskarrian eragiten duenetan. Margolari guztiek hartzen dute kontutan.

**15. Ikasketa Unitatea: ERLAZIO HARMONIKOETAKO SARRERA: HARMONIA KROMATIKOAK, ANTZEKOTASUN-HARMONIAK. AZENTUAK, KONTRASTEAK. KOLOREAREN SEMANTIKA. FUNTZIOAK ETA APLIKAZIOAK: KOMUNIKAZIO-BALIOA, ESPRESIO-BALIOA ETA BALIO SINBOLIKOA. (6 ordu)**

IU honetan esanguratsuena da: Kolorea nagusi den mezu plastikoak hartzailean izaten duen eragina eta hartzaileak jaso ditzakeen esanahiak balioetsiko dira; baita formak, konposizioak, proportzioak, etab. duten eragina ere.



### Ikasketa Unitateen eta ezagupenen adierazleen arteko elkarrekikotasunak

Adierazi berri ditugun IU bakoitzerako ariketak ezagupenen adierazlearen arabera izango dira, eta horien arteko lotura beheko taulan adierazitakoa da:

<b>Ikasketa Unitateak</b>	<b>Izendapena</b>	<b>Ezagutza-adierazleak</b>
IU 1	Forma. Kontzeptua. Forma-motak. Forma plastikoak.	1.1 - 1.2
IU 2	Irudia. Izaera eta kontzeptua. Saillkapena. Ezaugarriak. Funtzioak. Irudi grafikoplastikoa.	1.1 - 1.2 - 1.6
IU 3	Kontzeptu ikonografikoak: apuntea, eskema, zirriborroa, estudioa, proiektua eta amaierako irudia.	1.2 - 1.3 - 1.4 - 1.5 - 1.6 - 1.7 - 1.8 - 1.9 - 1.10
IU 4	Formaren antolaketa. Kontrastearen, banaketaren, kokapenaren eta orientazioaren erlazioak.	1.2 - 1.3 - 1.8 - 1.10
IU 5	Formaren adierazpenaren alderdiak. Ikuspuntua, enkoadraketa, orientazioa. Ikuste-eskalak. Erlazio espazialak. Ahokadura.	1.2 - 1.3 - 1.9 - 1.10
IU 6	Adierazi espazialak: zehartasuna, gainjartzea eta gardentasuna. Desitxuratzek. Gradazioak. Argia.	1.4 - 1.9 - 1.10
IU 7	Formaren psikologia. Ikuste-lege elkarrorak hurbiltasuna, antzekotasuna, berdintasuna, itxiera, jarraitutasuna, mugimendu komuna eta esperientzia.	2.6 - 3.1 - 3.5
IU 8	Parekotasun- eta kontraste-erlazio formalak: figura/atzealdea, neurria/kolorea, testura/tonoa. Hierarkizazioa. Gradazioa. Formek espazioan duten erlazioa: urruntasuna, ukipena edo tangenzia, gainezarpena, barneratzea, bilketa, kenketa, ebakidura eta kointzidentzia.	1.2 - 1.3 - 2.2 - 2.3
IU 9	Konposizioaren funtsezko legeak: oreka: pisua eta norabidea. Simetria. Asimetria. Proporzionaltasuna. Erritmoa: azentua, bitartea, modulu erritmikoa. Erritmoa. Modulu erritmikoa. Azentuak eta bitarteak. Erritmo estatikoa edo kadentzia, erritmo dinamikoa. Kontsonantzia, alternantzia, disonantzia, progresioa. Lerro-erritmoak, konfigurazio-erritmoak, kolore-erritmoak, tonu-erritmoak, testura-erritmoak, norabide-erritmoak, posizio-erritmoak. Formen egituraketa espaziala. Oreka estatikoa, elkarrekikotasunak. Simetria. Oreka dinamikoa: pisua eta norabide bisuala. Adierazle espazialak irudikapen grafikoplastikoan: perspektiba, argiaren eta koloreen espresio-balioa.	1.2 - 1.3 - 1.5 - 1.7 - 1.8 - 1.9 - 1.10 2.6 - 2.7 - 2.8 - 2.9



IU 10	Irudia eta funtzioak. Forma/edukia koherentzia. Elementuen arteko erlazioa, banaketaren eta orientazioaren arabera. Hedapena. Kontzentrazioa.	1.5 – 2.10
IU 11	Argiaren izaera. Espektrorik elektromagnetikoa. Ikuste-espektrorik ikusgaia. Argi zuriaren deskonposaketa. Dispersioa. Sintesi batukorra. Argi primarioak.	2.5 – 3.6
IU 12	Kolorearen pertzepzioa. Ikuste-sistema. Ikusmen-prozesua: maila fisiologikoa, psikikoa. Koloreak ikustearen teoria.	3.1 – 3.6
IU 13	Kolorearen dimentsioak: tonua edo ñabardura, aletasuna edo intentsitatea eta distira edo argitasuna. Kolorearen metrika.	3.2 – 3.3 – 3.4 – 3.5
IU 14	Pigmentu-kolorea. Nahasketa murriztailea. Oinarrizko pigmentua. kolore osagarriak. Bigarren mailako eta hirugarren mailako kolore konposatuak. Koloreen psikologia. Armonia eta kontrastea. Sentsazio termiko kromatikoa: tonu beroak, tonu hotzak. Fenomeno optikoak. Koloreen dinamika. Aldi bereko kontrasteak. Kolorearen erlatibotasuna. Koloreen arteko elkarreagina.	1.3 – 1.10 – 2.2 – 2.3 – 2.4 – 2.7 3.1 -3.2 – 3.3 – 3.4 – 3.5
IU 15	Erlazio harmonikoetako sarrera: harmonia kromatikoak, antzekotasun-harmoniak kontrasteak. Kolorearen semantika. Funtzioak eta aplikazioak: komunikazio-balioa, espresio-balioa eta balio sinbolikoa.	1.2 - 1.3 – 1.4 – 1.7 – 1.9 - 1.10 2.1 - 2.2 – 2.3 – 2.4 – 2.5 – 2.7 3.1 -3.2 – 3.3 – 3.4 – 3.5 – 3.6

### **Ikasketa-unitateetan aplikatu beharreko metodologia**

Gai hauek zehatz-mehatz ezagutzezik ez da nahi, horien aplikazio-esparruak ezagutu besterik ez da egin nahi. Horregatik, ariketen eta problemen ebazpenak lehentasuna izango du, gero paperean ezarri ahal izateko.





## • IKASKETARAKO BALIABIDEAK

Gai hauek prestatzen laguntzeko (prestaketa autodidakta nahiz zuzendua), baliabide eta euskarri didaktikoak erabiltzea ezinbestekoa da, eta liburuak izaten dira horien artean erabilienak; dena den, geroz eta gehiago erabiltzen dira ikus-entzunezko materialak eta material informatikoak.

Modulu hau DBHko 1. eta 2. mailan ematen den mailarekin bat dator oinarrian, eta beraz, lehen aipatutako IUak prestatzeko maila horretako edozein testu-liburuk balioko du.

Horregatik, ikasketarako beheko testuak eta laguntzak gomendatzen dira:

### 1. multzoa:

BARGUEÑO E. –SANCHEZ M.	Dibujo Artístico 1º Bachillerato	Mc Graw Hill
DE SANDOVAL. Álvaro	Manual de educación plástica y visual Observar Interpretar Expresar	Editorial Sandoval

### 2. multzoa:

BARGUEÑO E. –SANCHEZ M.	Dibujo Artístico 1º Bachillerato	Mc Graw Hill
DE SANDOVAL. Álvaro	Manual de educación plástica y visual Observar Interpretar Expresar	Editorial Sandoval

### 3. multzoa:

BARGUEÑO E. –SANCHEZ M.	Dibujo Artístico 1º Bachillerato	Mc Graw Hill
DE SANDOVAL. Álvaro	Manual de educación plástica y visual Observar Interpretar Expresar	Editorial Sandoval